

GABINO ALUSTIZA ETXEERRIA

Aiako alkatea (Segura 1888- Hernani 1936)



Aiako errepresioa herriko hiru ordezkari garrantzitsuenekin hasi zuten: alkateak, alkateordeak eta parrokoak. Biktima hauek aukeratzea ez da kasualitatea, helburu eredugarria baitu: izua erabiltzea herriari lezio bat emateko.

Izan ere, asko izan ziren errepublikanoen garaiko azken hauteskundeetan bozketa demokratiko bidez aukeratutako alkateak, eta erail egin zituzten, lehenengo aldaketarekin, matxinatuek populazio baten kontrola hartzen baitzuten. Gabino Alustizaren kasua, beraz, ez zen gertaera isolatua izan, baizik eta frankistek sistematikoki ezarritako izu eta nagusitasun-politika beraren barruan kokatzen da.

Gabino Alustiza Seguran jaio zen 1888an, eta 1915ean Aiara joan zen bizitzera. Han, Laurgain jauregiko administratzaile gisa lan egiten zuen. 1931ko udal hauteskundeetan, bere adopziozko herriko, Aiako, alkate hautatu zuten, eta kargu horretan jarraitzen zuen 1936an. 1934an bakarrik kendu zuten alkatetzatik, Espainiako gobernuak foruen defentsan zegoen udal-mugimendu bat geldiaraztea eragotzi nahi izan zuenean, eta mila alkate eta zinegotzi baino gehiago auzipetu zituen, tartean Gabino Alustiza,

udaletxean Espainiako bandera ez altxatzea, ikurrina bakarrik jasotzea ere egotzita.

1936ko abuztuan, beraz, tropa frankistak Aian sartu zirenean, Gabino zen bertako alkatea. Aiatik ihes egin ahal izango zuen, baina bere herrian geratzea erabaki zuen, nahiz eta oso kontziente izan bere erabakia arriskutsua zela. Bere bizitzarekin ordaindu zuen erabakia. Aiako biztanleen oroimen kolektiboan, bildu ditugun testigantzen arabera, hainbat esaldi eta leku arrunt agertzen dira alkatearen harrapaketari eta hilketari buruz ari direnean. Haien artean hungigarrienetako bat izango da atxilotu behar zutela jakin zuenean esan zuen esaldia: “Niri zer inberdiate, nik salbatu dizkit ba behak...” Bere zoritxarrerako, matxinatu frankistek ez zioten eman Aiako kartzeletan giltzapetuta zeuden erreketeei emandako babes-tratu bera.

Gabino espetxeratu eta Ondarretako espetxera eraman zuten. Bertan, alabak egunero zaintzen zuen, eta elikagaiak eta gauzak eramaten zizkion, bere bizitza errazteko asmoz. 1936ko urriaren 27an Hernaniko hilerrira eraman zuten eta bertan exekutatu zuten.



GABINO ALUSTIZA ETXEBERRIA

Gabino Alustiza Etxeberria, alcalde de Aia Segura 1888- Hernani 1936



La represión en Aia comenzaría por tres de las figuras más importantes y representativas de la localidad: el alcalde, el teniente alcalde y el párroco. La elección de las víctimas no es casual, tiene una finalidad ejemplarizante: el uso del terror para dar una lección al pueblo.

De hecho, fueron numerosos los alcaldes elegidos por votación democrática en las últimas elecciones del periodo republicano que acabaron siendo asesinados, a la primera de cambio, toda vez que los sublevados se hacían con el control de una población. El desgraciado caso de Gabino Alustiza, por lo tanto, no fue un hecho aislado, sino que se inserta dentro de la misma política de terror y dominio implantado de forma sistemática por los franquistas.

Gabino Alustiza, natural de Segura, nacido en 1888, trasladándose a Aia en 1915, donde trabaja como administrador del Palacio de Laurgain. En las elecciones municipales de 1931 fue elegido alcalde de su pueblo adoptivo, Aia, cargo que seguía ocupando en 1936. Solamente fue apartado brevemente de la alcaldía en 1934, cuando el gobierno español intentó impedir por todos los medios detener un movimiento municipal en defensa de los fueros, llegando a procesar a más de mil alcaldes y concejales vascos,

entre ellos a Gabino Alustiza, acusado igualmente de no izar la bandera española, sino solo la ikurriña, en el ayuntamiento.

En agosto de 1936, por lo tanto, cuando las tropas franquistas entraron en Aia Gabino era su alcalde. Habría podido escapar de Aia, sin embargo había optado por permanecer en su pueblo, aun cuando era muy consciente del peligro que corría por su decisión. Decisión que pagó con su vida. En la memoria colectiva de los habitantes de Aia, según los testimonios que hemos conseguido recopilar, son varias las frases y lugares comunes que aparecen cuando se refieren al apresamiento y asesinato del alcalde. Entre ellos uno de los más conmovedores será la frase que pronunció cuando sabía que lo iban a detener: “Niri zer inberdiate, nik salbatu dizkit ba behak...” Para su desgracia, los sublevados franquistas no le dieron el mismo trato protector que había dado a los requetés recluidos en las cárceles de Aia.

Gabino fue encarcelado y trasladado a la cárcel de Ondarreta. Donde era atendido todos los días por su hija quien le llevaba alimentos y enseres con intención de facilitar su vida. El 27 de octubre de 1936 fue trasladado al Cementerio de Hernani donde fue ejecutado.